

TESTUA: ERANTZUKIZUN POLITIKOEN LEGEA (1939-02-09)

(...) Gobernuak (...) uste du unea iritsi dela Erantzukizun Politikoen Lege bat emateko, balioko duena beren egite edo ez-egite larriekin matxinada nazionala gorpuzten lagundu zutenek alde horretatik dituzten erruak ordaintzeko (...).

Zigorrak ezartzeaz arduratuko diren auzitegietaiko kideak Armadaren, Magistraturaren eta Falange Española Tradicionalista y de las JONSen ordezkariak izango dira (...).

1 art. Erantzule politiko deklaratzeko dira 1934ko urriaren 1etik 1936ko uztailaren 18ra bitarte Euzkadiri jasanarazi zitzaion era guztietako subertsioa eragiten edo areagotzen lagundu zuten pertsona fisikoak nahiz pertsona juridikoak, eta orobat bigarren data horretatik aurrera, beren egintza batzuekin edo gelditasun larriarekin, Iraultza Nazionalaren kontra aritu direnak edo daudenak.

2. art. Aurreko deklarazioaren ondorioz (...) legeztatuta gelditzen dira 1936ko otsailaren 16an egindako hauteskundearen deialdia egin zenez geroztik CEDA osatu duten alderdi edo talde politiko eta sozial guztiak, eta orobat harekin bat egin duten edo hari atxiki zaien alderdi eta taldeak hori egin izan hutsagatik, erakunde nazionalak eta Mugimendu Nazionalaren porrotari kontra egin dioten guztiak.

3. art. Legez kanpo deklaraturako alderdi, talde eta erakundeek osotara mantenduko dituzte era guztietako eskubideak eta ondasun guztiak.

Boletín Franquista, 1939ko otsailaren 13a.